

## **Arabako Foru Aldundiak zerga kontrola indartu du TicketBAI-ren bidez, eta 77 milioi euro azaleratu dira ikuskapenean, 2025ean**

*Itziar Gonzalo Ogasun Saileko diputatuak garrantzia eman dio TicketBAI tresna teknologikoari, "zerga informazioa denbora errealean gurutzatzeko, inkoherentziak detektatzeko eta diru sarrerak ezkutatzeko marjina nabarmen murrizteko aukera ematen baitu"*

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 3a.** Arabako Foru Aldundiak zerga iruzurraren aurkako estrategia areagotu du, eta zergak ikuskatzeko zerbitzutik 77 milioi euro azaleratu dira 2025ean, zerga kontrola eta TicketBAI bezalako tresna teknologiko aurreratuak konbinatuta. Gaur goizean, Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak datu horiek azaldu ditu Batzar Nagusien kontrolako osoko bilkuran, eta honako hau azpimarratu du: *"jarduera ekonomikoen kontrolari buruzko zifrek erakusten dute ikuskatze ekintzak eta trazabilitate tresnek modu osagarrian lan egiten dutela dirubilketa eta zerga ekitatea indartzeko"*.

Bere hitzaldian, Gonzalok garrantzia eman dio Foru Ogasunak egindako "lan bizi eta dibertsifikatua"ri, zeinak egiaztapen, ikerketa eta kontrol jarduerak egin baititu. Haien artean, jarduera ekonomikoen gaineko 1.801 jarduketak nabarmentzen dira, 17,7 milioi eurotik gorako emaitzarekin, eta jarduera horiek ezohiko errendimenduak edo fikziozko gastuak atzematera bideratu dira.

Era berean, beste kontrol eremu batzuen eragina aipatu du, hala nola itzulketak (4,1 milioi baino gehiago azaleratu dira), lurralde bakoitzeko eragiketen bolumena (21,5 milioi baino gehiago) edo atxikipenen arloko jarduketak (11,6 milioi eurotik gorakoak).

Ikertu diren beste jarduera ildo batzuk ondare irabaziei eta kriptotxanponei buruzkoak dira, 2,6 milioiko emaitzarekin. Zerga arrisku handiko sektoreetan egindako egiaztapenetan 2,1 milioiko balioa duten kasuak itxi dira, eta zerga inkoherentzien ondoriozko jarduketetan 3,2 milioi eskuratu dira.

*"Zerga iruzurraren aurkako borroka ez da gai tekniko hutsa; justizia, ekitate eta erakundeekiko konfiantza kontua da"*, adierazi du Gonzalok, eta azpimarratu duenez politika horiek *"funtsezkoak dira zerbitzu publiko sendoei eusteko"*.

### **TicketBAI, funtsezko pieza**

TicketBAIk zerga sistema modernizatzeko tresna estrategiko gisa duen zeregin nagusia nabarmendu du Foru diputatuak. "Ez gaude garapen tekniko huts baten aurrean, baizik eta fakturazioa jatorrian kontrolatzea, diru sarreraren trazabilitatea indartzea eta jokabide opakuak eraginkortasunez zailtzea ahalbidetzen duen tresna baten aurrean", azaldu du.

Horiek horrela, azpimarratu duenez, "sistema horrek aukera ematen du zerga informazioa denbora errealean gurutzatzeko, inkoherentziak detektatzeko eta diru sarrerak ezkutatzeko marjina nabarmen murrizteko. *Iruzuraren aurkako borrokari egiten dion ekarpena argia da"*.

Gainera, nabarmendu du bete beharrekoa borondatez betetzea errazten duela TicketBAIk eta zergadunekiko harremana hobetzen duela, batez ere autonomoekiko eta enpresa txikiekiko harremana. Testuinguru horretan, zenbait tresna nabarmendu ditu, hala nola FakturAraba doako aplikazioa, zeinak aukera ematen baitu sistemara egokitutako fakturak jaulkitzeko software espezifiko instalatu beharrik gabe, eta zeinak duela gutxi fakturak ingelesez jaulkitzeko aukera eman baitu.

Era berean, foru arduradunak iaz egindako prestakuntza eta laguntza ekintzak aipatu ditu: zortzi informazio jardunaldi eta 400 parte hartzaile baino gehiago, bai eta kuadrilletako jarduera espezifikoak ere, tresna lurraldeko enpresa eta profesionaleri hurbiltzeko.

Azkenik, foru arduradunak zerga politikan "eskakizuna eta zerbitzua" konbinatzearen garrantzia defendatu du. *"Kontrollean eta teknologian aurrera egin behar dugu, eta egokitzeko laguntza behar dutenei lagundu, aldi berean zerga justizia eta zerbitzu publikoen jasangarritasuna indartuz", esanda amaitu du.*